

# METAMORFOSIA



NERABEZAROA AZALDUZ



Izena: ..... **Eider** .....

Data: ..... **2019/07/22** .....

# LAGUN ETA LOTSA ARTEAN

Gaur bero izugarria egin du, eta Mirenek, haurtzarotik ezagutzen dudana laguna, bere etxeko igerilekura gonbidatu gaitu. Oso ongi pasa dugu egun osoa bertan. Datorren astean errepikatu nahi dute, baina ez dakit ideia ona den... agian ez naiz joango. Etxera itzultzeko ordua iritsi denean, bainujantzia kendu eta arropa eroso jartzera igo gara Mirenen logelara. Lasai asko aldatu dira besteak, baina lotsa handia eman dit niri.

Gertatzen zaidan lehenengo aldia izan da, ez naizelako inoiz nire gorputzaz lotsatu. Baina aldatzen ari naizela sentitzen dut, eta horrek deseroso sentiarazi nau gaur. Zer dela eta ni naiz horrela sentitzen den bakarra? Gainera, besteak berdin jarraitzen dute. Beti bezala.

Gurasoak handitu naizela hitz egiten entzun ditut, 'emakume' bat naizela eta horrelakoak esanez. Ilusioa egin beharko lidake agian, baina egia esan, nahiz eta hori heldutzen ari naizen seinale den, ez dit batere ilusiorik egiten. Ez dut desberdina izan nahi.

Baina azken urte honetan etengabe aldatzen ari naiz, eta oso azkar gainera. Iaz nire lagunak bezalakoa nintzen, baina orain, ni naiz altuena, ilea hazitzen hasia zait gorputzetik, bularretakoak erabiltzen hasi behar izan dut, besteak beste.

# DENEK IKUSTEN NAUTENEAN, BEGIRATU EZ ARREN

2021eko urtarrilaren 8a.

Jada 14 urte bete berri ditut, ikastolan lagun taldeak aldatzen joan dira eta nik nire taldea aurkitu dudala ematen du. Duela aste batzuk, ikastolan pasabidetik bakarrik nindoala, nire kurtsoko lagun talde baten aurrean ibiltzen pasa nintzen, beraien begiradak nigan sentitzen nituelarik. Ez nuen entzun zer, baina taldeko neska batek zerbait esan zuen eta gainerako guztiak barrezka hasi ziren. Agian, ez ziren nitaz ari, agian ez ninduten begiratu ere ez egin, baina oso sentrazio desatsegina zabaldu zitzaidan gorputz osotik.

Lotsa eta deserosotasun asko sentitu nuen eta gertaera hartatik aurrera nire buruan zerbait aldatu zela sentitzen dut. Besteek nitaz zer pentsatzen hari ote diren galdetzen diot nire buruari askotan. Pentsamendu horiek nire burutik ateraezinak dira eta niregan segurtasun falta izaten hastea eragin dute.

Eguberri hauetan antzeko zerbait gertatu zitzaidan ere: normalean ilusio asko ematen dit baserritarraz janztea, txikitatik egiten dudalako. Baina urte honetan, nire lagun taldearekin horretaz hitz egitean, baserritarrez ez zirela jantziko esan zidaten, kurtsoko gainontzeko neska gehienak ez zirelako jantzi behar. Hasieran lagunen erabaki hori pena handia eman zidan baina gero, baserritarrez jantziko zen bakarra izango nintzela pentsatzeak nire ikuspuntua aldatu zuen.

Baserritarrez jantzita joan izan banintz, denek ikusten nindutela sentitu izango nuke, nahiz eta haiek niri ez begiratu. Barre bakoitza, komentario bakoitza edo begirada arretagabe bakoitza, niri zuzendua egongo zela pentsatuko nuela badakit eta horregatik, desberdina izatearen beldur nintzenez, ez nintzen baserritarrez jazten ausartu.

# "NI" BAT ERAIKITZEKO PIEZAK

2022ko urriaren 27a.

Egun batzuetatik hona nire barruan aldaketak sentitzen ari ditut. Egunero "maskara" berri bat probatzen dudanaren sentsazioa daukat, ez besteei ziria sartu nahi diedalako, baizik eta hobeto nor naizen aurkitu nahi dudalako.

Nire bizitza soziala nire burua bezain nahasia dagoela sentitzen dut ere. Mirenekin betiko gaiei buruz hitz egiten jarraitzen dut. Kirola, musika, gure sentimendu eta kezkak... Baina Maitanerekin, institutuko lagun berriarekin, elkarrizketak oso desberdinak dira, ez dira hain sakonak. Gure interesak aldatu dira: sare sozialei, jaiei edo gure inguruko beste pertsona batzuei buruz hitz egiten dugu batez ere.

Bi izaera desberdin izan behar banitu bezala sentitzen dut, eta batzuetan ez dakit zein zen benetako Eider. Horren guztiaren erdian, probatzen dudana "maskara" bakoitzak gauza sakonagoak galdetzera naramala konturatu naiz: nor naiz benetan? Zer zentzu du bizitzak?... Zalantza hauek ni hobeto nor naizen ulertzeko balio didatela uste dut, introspekzio edo nire barrura begiratzeko ariketa bat balitz bezala erabiltzen ahal ditudalako.

Hortaz, gutxinaka nire burua geroz eta gehiago ezagutzen eta ulertzen ari dut eta nire nortasuna eta balioak forma hartzen ari dute, ez inposatutako zerbait bezala, nik neuk eraikitzen dudana zerbait bezala baizik, piezaz pieza.

# KAOSAREN ERDIAN ESENTZIA BILATZEN

2023ko otsailaren 13a.

Aurten erabaki handi bat hartu dut, Frantzian nago ikasturtea pasatzen. Aldaketa baten beharra nuen, batez ere gurasoengandik pixka bat aldentzeko eta independenteago sentitu eta bilakatzeko. Hala ere, hasieran gurasoak faltan botatzen nituen, baina gutxinaka ohitu naiz, azken finean asteburuero itzultzen nahiz etxera, eta horrek esperientzia hau eramangarriagoa egiten du.

Asteburuetan nekatuta iristen naiz etxera eta liskarrak izaten ditut gurasoekin. Ulertzen dut haiek nirekin egon nahi izatea, baina deskantsatu behar dut. Frantziako ikastolan sei astetan behin bi asteo oporrak ditugu, eta horrek familiarekin egoteko aukera ematen dit. Iruñeko lagunekin egoten saiatzen naiz bi aste horietan, baina ikastola dutenez askotan ezinezkoa da.

Eztabaidak izaten ditut beraiekin ere, haiekin denbora gehiago igarotzea eskatzen didatelako (baina ez dut aukerarik) edota bakarrik sentitzen naizelako.

Whatsapp-eko taldean ikastolako gauzei buruz hitz egiten dute eta galdetzen dudanean ez didate egoera azaltzen, horrek alde batera geratzen naizela sentiarazten dit. Ulertzen dut gauza guztiak azaltzea astuna izan daiteekela baina, ezer ez...

Batzuetan nire lagunei axola ez diedanaren sentsazioa daukat. Maitanerekin hitz egiten saiatu nuen, (telefonoz noski, ezin diodalako ikusi) eta berarekin ireki nintzen, bakarrik sentitzen nintzenaren arazoarekin. Maitane ez zuen ulertzen saiatu eta besteen alde jarri zen. Orain Iruñera etortzean etxean geratzen naiz, bakarrik.

Aita eta ama zerbait sumatu zuten. Hasieran ez nien kontatu nahi, baina azkenean ausartu naiz. Badirudi nire amari berdina gertatu zitzaiola eta uste nuena baino askoz gehiago ulertzen didate. Hainbeste urrundu naiz beraingandik, ez naizela ohartu haiek ere ulertu eta laguntzen ahal nautela.

Oraindik kurtso erdia geratzen zait Iparralden eta dagoeneko bizi izan dudana ikusita Frantzian egindako lagun berriak, benetakoak direla ohartu naiz.

# AMAIERAREN HASIERA

2025eko urtarrilaren 17a.

Gaur, nire logela garbitzen ari nintzela, nerabezaroko momentu ezberdinetan idatzi nuen hau aurkitu dut. Nire nerabezaroko buruarekin hitz egin ahalko banu, mundu guztia aldaketa fisiko eta mentalak jasaten dituela eta aldaketa horiek jasaten ari zituen pertsona bakarra ez nintzela azalduko nioke.

Horregatik, jendea aldatzen ari zenez, batzuetan ez nekien nola jokatu edo nor nintzen ni bentan. "Maskara" edo izateko forma ezberdinak probatzen nituenaren sentsazioa daukat, nire nortasun edo izaeraren bila nengoelako.

Gainera, lehen gainontzekoek nitaz zer pentsatuko zutenaren zalantzak asko larritzen ninduen.

Gaur egun, horretan asko hobetu eta aurreratu dudala konturatu naiz eta nire izaera eraikitzen joan naizen bitartean, gainontzekoek nitaz izan dezaketen iritziori garrantzia kendu diot, baita nik besteengan izan dezakedan iritziori ere.

Bestetik, ulertu dut Iparralden igarotako denbora esperientzia izugarria izan dela, independenteagoa bilakatzen, lagun berriak egin, beldur berriei aurre egin eta hizkuntza berri bat ikasi dudalako.

Oraindik ez dakit ziur zer egin nahi dudan nire bizitzarekin, baina hori ongi dago. Garrantzitsuena da orain badakidala datorrenarekin ahal dudala. Atzera begiratzuz gero, Eider txiki eta beldurtu bat ikusten dut, bere baitan sinesten ez zuena... eta harro nago egin dudan aurrerapenekin, egin dudan metamorfosiarekin.





Malen Eguillor, Maider Etxarte, Maider  
Cabodevilla, Ane Sarratea eta Oihane Olaso